

Jose Ignazio Ansorena

Berriro noria bueltaka

H

auxe da azken garaiotan dudan sentsazioa etxeko politikaren inguruan: noria berriro bueltaka. Aurreratzen ez duen gurpila. Ez dakite eta ez dute nahi –jakin eta nahi behar duten horietxek– inertzia absurdu eta itxi hori apurtzen. Bitartean, hainbeste buelta emanda, gehienok zorabiatuta eta nazkatuta gaude. Gonbitoka hasteko puntuan. Batzuen gainean egiteko aukera balego sikiera.

Aste honetan ere batzuk sinatzera joan gara herri plataformen (ez da akatsa) aurkezteko eskubidearen alde. Nahiz eta erabakita dugun beraiei botorik ez ematea. Beste asko sinatzera joango dira, joateko gogo handirik ez duten arren. Ulertuko al dute ententitu behar dutenek –bi aldetakoek noski– gure ekimenaren mezua? Ezetz egingo nuke.

Okerrena. Atzetik dena erabakita duten susmoa. Berriro ere, antzezpen nazkagarri baten aurrean gaudela. Alde batekoek badakite –txatxu pistoladun arriskutsu pare batek ez bestek– tiroka jarraitzea, krudelaz gainera, erridikulua dela eta okerreko bideetik garamatzala. Bestaldekoek ere, gizartearen asmoak bor txatuta, etorkizunik ez dutela.

Baina biek pentsamendu bera dute: ezinbestekoa denez, eta kontrarioak ere beharra duenez, nik estutu egingo dut bidean ahalik eta botere eta jarraitzaile gutxien gal dezadan. Bidean etorkin pare batzuk akabatu behar badira, edo euskal gazte batzuk torturatu behar badira, zer egingo diogu? Halakoxea da bizitza. Hori festa higuigarria.

– “Eta kartzeletan dauden presoak eta haien familiak?”

– “Tenple handikoak dira, ohituta daude sufritzen”.

– “Eta beldurrez bizi direnak?”.

– “Horiek ere aspaldiko ohitura dute, etsuko diote gehiago”.

– “Tarteka komisariatik pasata astindu batzuk hartu eta gorputzean betirako izua sartuta ateratzen direnak?”.

– “Leialak dira noski. Ulertu beharko dute, herriaren onerako egiten baitugu”.



ALBERTO ELOSEGI

Niri aspalditik nazka ematen didate noriazale batzuek zein besteek. Estimatu dion noriatik salto egiteko ausardia duenari. Inork hautsi beharko du ba inertzia bidegabe eta aspergarri hori.

* * *

Plataformen aldekoa sinatu dudana bezala, hau idazten hasi aurretik Maria San Gili eskutitz bat sinatu eta bidali diot. Minbizia duela aitortu baitu prentsaren aurrean. Eta nik osasuna opa nahi diot, eta bizipoza.

Nire usteetatik ezin urrutiago dago Maria. Askotan fanatismo puntua ere igartzen diot, bere egoeran –nagusi eta lagun zuen Gregorio Ordóñez, ondoan eserita zuela akabatu baitzuen ETAk–, ulergarria neurri batean. Baina, aldizkari honetan bertan kontatu nuen, bihotzekoak jo ninduenan bera izan zen

ohartxo bat, arrosa txorta batekin, bidali zidan aurrenekoa. Donostiako Udaletxeko lanean, nirekin eta nire lankideekin beti izan da pertsona atsegin eta abegi onekoa. Benetan azkar eta ondo osatzea opa diot.

* * *

Ez da bera izango noriatik salto egingo duena. Berak noriarik ere ez luke nahiko. Saiatuko dira bera eta bere kideak oztopoak jartzen eta jarriko dituzte oraintsu arte

bezala. Duda egiten dut hala ere, oztoporik gogorrenak beraiek jarritakoak ote diren.

Oztoporik zailenak, gizarte ia osoaren gogoz kontrara, denaren gainetik duten botere neurriari eutsi nahi dioten horietxek jarriko dituzte. Beraiek eragindako kaltetuen begietan inoiz hondoratu ez direnak.

Biktima asko dago gure artean. Gehiegi. Eta jarraituko dute izaten. Gure izenean negoziatzen ari direnek ez dutelako onartzen pertsonak ideien eta botere gosearen gainetik egon behar dutela. Axioma soil eta oinarritzko hori beren buru-bihotzetan sartzen ez dugun arte, alferrikako biktima asko izango dira.

Ondoriozko beste axioma: biktima guztiak dira alferrikakoak. ■

Biktima asko dago gure artean. Gehiegi.
Eta jarraituko dute izaten. Gure izenean
negoziatzen ari direnek ez dutelako onartzen
pertsonak ideien eta botere gosearen
gainetik egon behar dutela